


DISOLUZIOAREN PROZESUA

Adibidez: NaCl sodio kloruroa (sukaldeko gatza) urarekin nola disolbatzen den aztertuko dugu.


Ura molekula polarra da, polo negatiboa oxigenoan eta polo positiboa hidrogenoetan dago. Uraren dipoloek solutu solidoaren sare ionikoaren ioiak separatzen dituzte eta disoluzioan

konposatu ionikoaren ioiak aske geratzen dira, hau da, gatza solidoa disolbatu egin da.




DISOLUZIO PROZESUAREN EKUAZIO KIMIKOA

*Disoluzioan solidoa (solutua) uretan erabat disolbatuta edo ionizatuta dago.



*Ioiak ur molekulez inguratuta daudenez ioietan (aq) jartzen da, hori adierazteko.



*Maila mikroskopikoan solutuaren ioiak berdin sakabanatuta daude disoluzio osotik → NAHASTE HOMOGENEOA

